



UDALBATZARRAK 2022ko APIRILAREN 20an EGINDAKO EZ OHIKO BILKURAREN AKTA

2022ko apirilaren 20an, Alkizako Udaletxean, goizeko 12.00etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Inaki Irazabalbeitia Fernandez
ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Unai Sorarrain Urruzola

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DU: Koldobika Jauregi Zinkunegi, Concepcion Soria Legua, Gillermo Jesus Otegi Zubillaga eta Shrabani Aranzabe Pita

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

- 1. Alkizako Sormenaren Kabia: deialdiaren hasiera eta oinarrien onespena.**
- 2. 2022 urteko trakzio mekanikoko ibilgailuen zergaren erroldaren onespena.**

.../...

LEHEN PUNTUA

ALKIZAKO SORMENAREN KABIA: DEIALDIAREN HASIERA ETA OINARRIEN ONESPENA

Ikusirik Alkizako Sormenaren Kabia Bekaren 2022 urterako deialdirako oinarriak prestatu direla.

Kontutan izanik, udal batzarkideek, aipaturiko deialdiaren oinarriak aztertu dituztela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo



ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Sormenaren Kabia Bekaren deia egitea 2022. urterako.

BIGARRENA: Sormenaren Kabiaren 2022ko edizioa gidatuko duten oinarri arautzaileak onartzea.

HIRUGARRENA: Sormenaren Kabiaren 2022ko ekitaldiko epaimahaia onartzea.

LAUGARRENA: Sormenaren Kabia Bekaren 2022ko edizioan hautagaiak aurkezteko epea maiatzaren 12tik ekainaren 30era bitartean indarrean egongo da, bi datak barne.

BOSGARRENA: Sormenaren Kabia Bekaren oinarri arautzaileak Alkizako Udalaren eta Fagus Alkiza Interpretazio Zentroaren atarietan ikusgai jartzea. Hala, edonoren eskura daude www.alkiza.eus eta fagus-alkiza.eus web orrialdeetan.

SEIGARRENA: 2.000,00 eurotako gastua onestea udal aurrekontuetako 480.172.00.01 partidaren kargura.

BIGARREN PUNTUA

2022 URTEKO TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN ZERGAREN ERROLDAREN ONESPENA

Ikusirik 2022 urteko ekitaldiko trakzio mekanikodun ibilgailuen udal zerga kobratzeko errolda,

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Udaleko 2022 urteko trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga errolda onartzea.

BIGARRENA.- Alkizako Udaleko 2022 urteko trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga jendaurrean ipintzea edonork azertu eta egoki dituen alegazioak burutu ditzan.



HIRUGARRENA.- 2022 urteko urteko trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga ordaintzeko ondorengo borondatezko epea ipintzea: 2022 ko maiatzaren 3tik uztailearen 4a bitartean, biak barne.

LAUGARRENA.- Ebazpen honen berri datorren Udalbatza Arruntean ematea.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 12.15 amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.

IDAZKARIAK